Bestelako Xedapenak

**JUSTIZIA ETA
HERRI ADMINISTRAZIO SAILA
ENPLEGU ETA GIZARTE GAIETAKO SAILA**

1936

93/2010 DEKRETUA, martxoaren 23koa, Getariako «Euskadi GKE Elkartea-Asociación ONG Elan Euskadi» elkartea herri-onurakotzat aitortzeko dena.

Euskadiko Elkarteei buruzko ekainaren 22ko 7/2007 Legearen 42. artikuluak honela dio: Euskal Autonomia Erkidegoko Elkarteen Erregistro Orokorrean inskribatuta dauden elkarteak herri-onurakotzat aitortu ahal izango dira, baldin eta elkarteok, beren jardueren bitartez, interes orokorra edo guztien ongia lortzen laguntzen badute, eta, horretarako, eskuzabaltasun-, altruismo-, elkartasun- eta aniztasun-balioak nabarmen gauzatzen badituzte.

Lege horren babesean, Getariako «Euskadi GKE Elkartea-Asociación ONG Elan Euskadi» elkarteak aitormen hori eman dakiola eskatu du, bere ustez herri-onurako erakundea dela aitortzea merezi duelako, garapen-lankidetzaren alorrean eta garapen-bidean dauden herrialdeen arazoen inguruan elkartasun-kontzientzia sustatzeko egiten dituen ekintzengatik.

Elkarte eskatzailea 1996ko urriaren 26an eratu zen, eta jardute-eremua Euskal Autonomia Erkidegoan du nagusiki. Elkarteen Erregistroan 1996ko abenduaren 17an inskribatu zen AS/G/06426/1996 zenbakiarekin.

Eratu zenetik, Getariako «Euskadi GKE Elkartea-Asociación ONG Elan Euskadi» elkarteak bere helburu nagusia lortzeko burutu beharreko jarduera guztiak burutzen ditu, helburu hori izanik garapen-bidean dauden herrialdeetan bizitza-kalitatea hobetzen lagunduko duten proiektuak gauzatzea. Halaber, Euskal Autonomia Erkidegoko herritarren artean elkartasun-kontzientzia sustatzeko lanetan ere aritzen da.

Gizarteak, benetan interes orokorrekotzat jotzen ditu jarduera horiek guztiak.

7/2007 Legearen 45.2 artikuluan agindutakoarekin bat etorriz, herri-onurako aitorpena Jaurlaritzaren Kontseiluak erabakitako dekretu baten bidez egingo da. Dekretu-proposamena kasuan kasuko sailek –gaiaren arabera– eta, betiere, justiziaren arloan eskuduna den sailak egingo dute, eta azken sail horrek izapidetuko ditu bai prozedura, bai bertan sor daitezkeen auzi guztiak. Agindu hori betez, dagokion espedien-

Otras Disposiciones

**DEPARTAMENTO DE JUSTICIA
Y ADMINISTRACIÓN PÚBLICA
DEPARTAMENTO DE EMPLEO
Y ASUNTOS SOCIALES**

1936

DECRETO 93/2010, de 23 de marzo, por el que se reconoce como de utilidad pública a la «Euskadi GKE Elkartea-Asociación ONG Elan Euskadi», de Getaria.

El artículo 42 de la Ley 7/2007, de 22 de junio, de Asociaciones de Euskadi, establece que podrán ser reconocidas como de utilidad pública, las asociaciones inscritas en el Registro General de Asociaciones del País Vasco, que contribuyan mediante el desarrollo de sus actividades, a la consecución del interés general o del bien común realizando de manera significativa los valores de generosidad, altruismo, solidaridad y pluralismo.

A su amparo, «Euskadi GKE Elkartea-Asociación ONG Elan Euskadi», de Getaria ha solicitado la declaración mencionada, por entender que las actividades que desarrolla en el campo de la cooperación al desarrollo, así como la sensibilización sobre la problemática existente en los países en vías en vías de desarrollo, la hacen merecedora del reconocimiento como entidad de utilidad pública.

La Asociación solicitante es una entidad constituida el 26 de octubre de 1996 e inscrita en el Registro de Asociaciones el 17 de diciembre de 1996, con el número AS/G/06426/1996, que extiende su ámbito de actuación principalmente a la Comunidad Autónoma de Euskadi.

Desde su constitución, «Euskadi GKE Elkartea-Asociación ONG Elan Euskadi», de Getaria realiza todas las actividades precisas para la consecución de su fin principal que es la ejecución de proyectos en países en vías de desarrollo estando estos proyectos dirigidos a contribuir en mejorar la calidad de vida de los países en los que se desarrollan. Así mismo, se realiza una labor de sensibilización de la población de la Comunidad Autónoma de Euskadi.

Todas son actividades ampliamente reconocidas por la sociedad como de interés general.

De conformidad con lo dispuesto en el artículo 45.2 de la citada Ley 7/2007, la declaración de utilidad pública se realizará mediante Decreto acordado en Consejo de Gobierno, a propuesta de los Departamentos que corresponda en función de la materia y, en todo caso, del departamento competente en materia de justicia, el cual tramitará el procedimiento y dirimirá cuantas cuestiones pudieran surgir en él.

tea instruitu da, eta, ondoren, sailei eta instituzioei eskatu zaizkien txostenak erantsi zaizkio espedienteari. Txosten horietan, bestalde, Getariako «Euskadi GKE Elkartea-Asociación ONG Elan Euskadi» elkartea onuragarria dela aitortzearen alde agertzen dira bai sailak, bai instituzioak.

Ondorioz, Justizia eta Herri Administrazioko sailburuak eta Enplegu eta Gizarte Gaietako sailburuak elkarrekin proposaturik, entitate eta erakunde interesatuek egindako txostenak ikusirik eta Jaurlaritzaren Kontseiluak 2010eko martxoaren 23an egindako bilkuran aztertu eta onartu ondoren, hauxe

XEDATU DUT:

Artikulu bakarra.– Getariako «Euskadi GKE Elkartea-Asociación ONG Elan Euskadi» elkartea, Euskal Autonomia Erkidegoko Elkarteen Erregistro Orokorrean G/06426/1996 zenbakiarekin inskribatuta dagoena, herri-onurakoa dela aitortzea, bere jardueraren bidez interes orokorraren alde egiten duela uste baita.

Horrekin batera, aitorpen horri dagozkion eskubideak aitortzen zaizkio, hain zuzen ere, Euskadiko Elkarteei buruzko ekainaren 22ko 7/2007 Legeko 43. artikuluan jasota daudenak.

Vitoria-Gasteizen, 2010eko martxoaren 23an.

Jarduneko Lehendakaria,
MARÍA ISABEL CELAÁ DIÉGUEZ.

Justizia eta Herri Administrazioko sailburua,
IDOIA MENDIA CUEVA.

Enplegu eta Gizarte Gaietako sailburua,
MARÍA GEMMA ARÁNZAZU ZABALETA ARETA.

En cumplimiento de dicho mandato, se ha instruido el oportuno expediente, habiéndose incorporado al mismo los informes emitidos por los Departamentos e instituciones requeridos al efecto, en los que manifiestan su parecer favorable a la declaración de «Euskadi GKE Elkartea-Asociación ONG Elan Euskadi», de Getaria como entidad de utilidad pública.

En su virtud, a propuesta de las Consejeras de Justicia y Administración Pública y de Empleo y Asuntos Sociales, vistos los informes emitidos por los entes y organizaciones interesados, y previa deliberación y aprobación del Consejo de Gobierno, en su reunión celebrada el día 23 de marzo de 2010,

DISPONGO:

Artículo único.– Declarar de utilidad pública a la «Euskadi GKE Elkartea-Asociación ONG Elan Euskadi», de Getaria, inscrita con el número G/06426/1996 en el Registro General de Asociaciones del País Vasco, por considerar que contribuye a la promoción del interés general mediante el desarrollo de sus actividades.

Así mismo, se le reconocen los derechos inherentes a esta declaración previstos en el artículo 43 de la Ley 7/2007, de 22 de junio, de Asociaciones de Euskadi.

Dado en Vitoria-Gasteiz, a 23 de marzo de 2010.

La Lehendakari en funciones,
MARÍA ISABEL CELAÁ DIÉGUEZ.

La Consejera de Justicia y Administración Pública,
IDOIA MENDIA CUEVA.

La Consejera de Empleo y Asuntos Sociales,
MARÍA GEMMA ARÁNZAZU ZABALETA ARETA.